

## Bizidunak aurkitu dituzte Dallol sumendian, munduko leku muturrenetako batean

**Dallol sumendia** Etiopiaren ipar-ekialdean dago, Afar triangeluan, Danakil basamortuaren erdian. Hango ur termalek munduko kondizio muturrenetakoak dituzte: izugarri azidoak dira (pH 0 edo txikiagoa), erabat gaziak (aseak), metaletan aberatsak (burdina, kuprea...) eta oso beroak (90-109 °C). Orain, hango jalkin mineraletan mikroorganismoak aurkitu dituzte Espainiako Astrobiologia Zentroko ikertzaileek.




ARG.: © iStockphoto.com/Guenterguni.

Besteak beste, haien DNA aztertu dute, eta, analisi genetikoek eta bestelako probek erakutsitakoaren arabera, Nanohaloarchaea ordenakoak direla uste dute ikertzaileek, baina ez dute baztertu orain arte ezagutzen ez zen ordena batekoak izatea. Nolanahi ere, beste ikertzaile batzuek zalantzak dituzte, eta baieztatu arte ezin dela ziur egon ohartarazi dute. Baieztatuz gero, esanguratsua izan daiteke, adibidez, iraganeko Lurrean bizia nola sortu zen ezagutzeko, eta Marten edo gure planetatik kanpoko beste leku batzuetan ere bizirik egon ote zitekeen edo litekeen ikertzeko. ●

## Hipotalamoan ere sortzen eta gordetzen dira oroimenen aztarnak

Oxitozina oinarritutako ikerketa bati esker, hipotalamoak oroimenaren mekanismoetan funtsezko zeresana duela frogatu du Mazahir T. Hasan ikertzaileak (Ikerbasque, Achucarro zentroa) gidatutako taldeak.



ARG.: Thomas Spletstoesser.

Orain arteko hipotesi onartuenaren arabera, ebolutiboki hipotalamo bano berriagoak diren garun-egituretan kokatzen zen oroimenaren sorrera eta biltegiratzea, zehazki, kortexean eta hipokanpoan. Horrenbestez, ikerketa iraultzailetzat jo dute, eta adierazi dute oroimenaren mekanismoak ulertzeko bide berriak irekitzen dituela.

Optogenetika baliatu dute beldurrarekin lotutako oroimena ikertzeko arratoiengan. Horretarako, oxitozina ekoizten duten neuronetan jarri dute arreta, hormona horrek zerikusi zuzena baitu beldurrarekin zein beste emozio batzuekin. Optogenetikaren bidez neuronak aktibatuta eta desaktibatuta, lortu dute frogatzea hipotalamoan ere gordetzen direla oroimenaren aztarnak. ●